


Zerbitzu pilotuari atxikitzea



Bilbao
Silver Lab

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Helburua	3
3. Atxikitako erakundeen profila	3
4. Atxikitako erakundeen konpromisoa	4
5. Erakunde laguntzaileentzako onurak:	4
6. Atxikitzeko prozedura	4
7. Indarraldia eta eguneraketa	5

1. Sarrera

Bilbao Silver Lab (BSL) Bilbao Ekintzak abiarazitako ekimena da, eta bizitza-luzeraren esparruan berrikuntzarako hiri-laborategi ireki gisa sendotzea du xede.

Zerbitzuaren helburu nagusia da adinekoei eta zaintzaileei zuzendutako produktuak edo zerbitzuak ingurune errealean probatzeko erraztasunak ematea. Horrela, zahartze aktiboa, osasungarria eta duina sustatuko da.

Zerbitzu hori benetan erabilgarria eta eraldatzailea izan dadin, funtsezkoa da adinekoekin lan egiten duten edo adinekoek osatzen dituzten erakundeen laguntza izatea. Horregatik, atxikitzeko programa hau abiarazi dugu, hasieratik proiektuan aktiboki parte hartu nahi duten bizitza-luzeraren ekosistemako erakundeei zuzendutakoa, eta probak egiten lagunduko duten erabiltzaileak, guneak, ezagutza eta beste edozein baliabide emango diegu.

2. Helburua

Helburua da bizitza-luzeraren sektoreko eragileen sare sendo eta askotarikoa sortzea, honako hauek ahalbidetzeko:

- Probak egiteko gutxieneko erabiltzaile- eta baliabide-zorua bermatzea.
- Probatuko diren enpresei eta proiektuei euren konponbideak baliozkotzeko ingurune errealeak eta adierazgarriak eskaintzea.
- Guztion artean berrikuntza-ekosistema irekia eta kolaboratiboa eraikitzea, zahartze aktiboaren eta adinekoen eta haien zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzearen inguruan.

3. Atxikitako erakundeen profila

Atxikitako erakundeek funtsezko zeregina dute BSLren eraikuntzan. Euren aniztasunari eta esperientziari esker, laborategia Bilboko adinekoen errealtatearen gune adierazgarria da. Probak egiteko ikuspegi eta baliabide baliotsuak eman ditzakete egoitzek, eguneko zentroek, elkarteek, gizarte-zerbitzuek, osasun-erakundeek edo sektoreko enpresek.

Erabiltzaileei eta guneei sarbidea errazteaz gain, erakunde horiek adinekoen kolektiboaren beharrei, lehentasunei eta erronkei buruzko ezagutza sakona ematen dute. Horien inplikazioak bermatzen du probatzen diren produktuak eta zerbitzuak baliagarriak izatea benetako egoerei eta xede-publikoaren heterogeneotasunari erantzuteko, eta, horrela, irtenbide berritzaileak baliozkotzeko eta egokitzeko prozesuak aberasteko.

Azken batean, berrikuntza-komunitate ireki batean aktiboki parte hartu nahi duten erakundeak bilatzen ari gara, erronkak, ikaskuntzak eta lorpenak partekatzeko. Ahaleginak batuta, hirian benetako inpaktu iraunkorra sortuko duen laborategi bat eraiki ahal izango da.

Hauek egin ahal izango dute bat programarekin:

- Egoitzek eta eguneko zentroek.
- Adinekoen elkarteek.
- Udal- edo foru-mailako gizarte-zerbitzuek.
- Osasun arlokoak edo soziosanitariokoak diren erakundeek.

- Adinekoen zaintzarekin edo ongizatearekin lotutako jarduerak egiten dituzten enpresek.

4. Atxikitako erakundearen konpromisoa

Programari atxikitzeak ez du esan nahi probetan berehala parte hartu behar denik, baizik eta zerbitzua garatu bitartean sortzen diren beharren arabera laguntzeko prest egon behar dela.

Probak egiteko eskaera jaso ondoren, Bilbao Ekintza atxikitako erakundeekin harremanetan jarri ahal izango da honako hauetarako:

- Proposatutako probarako erabiltzaile, gune edo beste baliabide egokirik duten aztertzeak.
- Kasu zehatz horretan parte hartzearen bideragarritasuna elkarrekin baloratzeko.
- Eskaera onartzeari buruzko erabakia hartzen parte hartzeko. Horretarako, euren ezagutza eta esperientzia partekatuko dute.

BSL zerbitzuari atxikitzeak eskatzen du probak egiteko eta hobetzeko ekintzetan borondatez parte hartzeko lankidetzak malgua izan behar dela, erakunde bakoitzaren prestasunaren arabera eta zerbitzuaren garapenari balioa ematera bideratutakoa

5. Erakunde laguntzaileentzako onurak:

BSLn parte hartzeak aukera ematen du gizarte-berrikuntzan erreferente gisa kokatzeko eta Bilboko bizitza-luzeraren sektorea eraldatzeko prozesuan aktiboki laguntzeko.

BSLko kide izateak hainbat abantaila eskaintzen dizkie erakunde laguntzaileei, besteak beste:

- Erabiltzaileentzako esperientzia aberasgarriak: Probetan parte hartzen duten adinekoek aukera izango dute konponbide berritzaileekin elkarrengaitzeko, gauza berriak ikasteko eta eguneko zentroetan, elkarteetan edo antzeko guneetan eskaini ohi ez diren esperientziak bizitzeko.
- Proiektu aitzindari batean parte hartzea: Bilboko bizitza-luzeraren arloko ekimen berritzaile baten parte aktiboa izatea, zeinak berekin baitakar proben emaitzak, sektorearen joerak eta irtenbiderik berritzaileenak bertatik bertara ezagutzea.
- Aintzatespena eta ikusgarritasuna: Proiektuaren komunikazioan eta hedapenean presentzia duen erakunde laguntzaile gisa aintzatespen publikoa lortzea.
- Lankidetzak-sarea: Ekosistemako beste erakunde, enpresa eta eragile batzuekin harremanak ezartzea. Horretarako, esperientziak trukatzeko eta aukera berriak sortzen laguntzea bultzatuko da.

6. Atxikitze prozedura

BSL programan parte hartu nahi duten entitateek atxikitze prozedura erraz bat bete beharko dute. Prozesu horren xedea hau da: eskuragarri dauden baliabideak identifikatzeko, Bilbao

Ekintzarekin komunikazio-kanal zuzena ezartzea proba potentzialak egiteko eta lankidetzaren formalizatzea, zeina indarrean egongo den zerbitzu hori indarrean dagoen bitartean.

Hauek dira jarraitu beharreko urratsak:

1. Atxikitze eskara: Erakundeek aurrez aurre aurkeztu ahal izango dute eskara (1. eranskina) Bilbao Ekintzaren bulegoetan (Nafarroa kalea 5, 3. solairua, Abando, 48001 Bilbo, Bizkaia), edo, bestela, telematikoki, helbide elektronikoaren bidez (sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus), zerbitzua aktibo dagoen bitartean.

Formularioan, beste datu batzuen artean, erakundeek zerbitzuaren eskura jar ditzaketen baliabideak adierazi beharko dituzte, euren gaitasunen eta erabilgarritasunaren arabera, hala nola:

- Probatzeko prozesuetarako erabiltzaileak.
 - Azpiegitura fisikoak (zentroak, guneak, ekipamenduak).
 - Ezagutza aditua edo laguntza teknikoa.
 - Probak egiteko lagungarria den beste edozein baliabide.
2. Berrikuspena eta onarpena: Eskara jaso ondoren, Bilbao Ekintzak proposamena aztertuko du eta, egokitzen jotzen bada, erakundea BSL zerbitzuaren laguntzaile gisa onartuko da. Onarpen horrek aukera emango du proba-ekintzetan parte hartzeko etorkizuneko aukerak aztertzeko, zerbitzuaren beharren eta erakundearen erabilgarritasunaren arabera.
 3. Atxikimendu-ziurtagiria ematea: Erakundea onartu ondoren, Bilbao Ekintzak atxikimendu-ziurtagiria egingo du, eta erakundeari bidaliko zaio, zerbitzuari atxiki zaiola jakinarazteko.
 4. Probaren garapena: BSLk jasotzen dituen proba-eskaeren arabera, Bilbao Ekintza harremanetan jarri ahal izango da erakundearekin, horietan parte hartzeko aukera aztertzeko.

Prozesu horrek ez dakar alderdietako baten (atxikitako erakundeak edo Bilbao Ekintza) berehalako konpromisorik, baizik eta BSLren garapenean laguntzeko borondatea izatea erakunde bakoitzaren baliabideekin eta gaitasunekin bat datozen aukerak sortzen direnean.

7. Indarraldia eta eguneraketa

BSL zerbitzuari atxikitzeak urtebeteko indarraldia izango du hasieran, eta automatikoki berritu ahal izango da, atxikitako erakundeak edo Bilbao Ekintzak besterik adierazi ezean.

Atxikitako erakundearen eta baliabidearen katalogoa aldi-aldi eguneratuko da, eta aukera emango da erakunde berriak sartzeko edo baliabidearen erabilgarritasuna aldatzeko, zerbitzuaren bilakaeraren eta hautemandako beharren arabera.

Edozein unetan, erakundeek beren erabilgarritasunean aldaketak egin dituztela jakinarazi ahal izango dute, edo atxikitze programan baja emateko eskatu ahal izango dute. Horrela, erakunde bakoitzaren errealitatearen egokitzeko lankidetzaren bermatuko da.